

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRIGINTZA SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Behin betiko onespena ematea Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren xedapen-aldaketa bati, Armentia menpeko toki-erakundeko Ostatu Emaileen kalearen lerrokadura zuzentzeari dagokionez

Hauxe erabaki zuen udalbatzak 2017ko urriaren 27an egindako ohiko bilkuran:

Gaia: Behin betiko onespena ematea Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren xedapen-aldaketa bati, Armentia menpeko toki-erakundeko Ostatu Emaileen kalearen lerrokadura zuzentzeari dagokionez.

Erabaki-proposamena

P. C. G. arkitektoak eta E. B. G abokatuak Gasteizko HAPO aldatzeko landu duten proiektua ikusi da. Aldaketa Gasteizko Armentia menpeko toki erakundeko Ostatu Emaileen kaleko lerrokadura zuzentzean datza, eta Armentia administrazio batzarreko lehendakari P. A. L. de U jaunak aurkeztu du 2017ko uztailaren 12an.

Aldaketa honen xedea da Gasteizko HAPOko dokumentazio grafikoa zuzentzea. Zehazki, Armentia toki-erakundeko lerrokadura plano eta 7.13 kalifikazio xehatua. Hauexek dira aldaketa-proposamenaren zioak:

- Indarrean dagoen HAPOak proposatutako bide-sarearen zabalera aldatu egiten da egun Armentia erdiguneko bide-sareak dituen ezaugarrietatik.
- Proposatutako lerrokadura horren eragina desagerrarazi nahi da, zeinen bidez bertan dagoen bolatokiar zati bat kentzen zaion.
- Egungo lerrokadura berreskuratzea, lursailak harlanezko harresiz eta zuhaixkez itxitakoa, herri gunearen bilbeari balioa ematen baitiote egun.
- Egungo bide-sarea Armentia kaleen trazatuaren ezaugarri da, eta bere dimentsioa bat dator gainerakoekin.
- Kale sendotua da, nekazaritza gunearen bilbearen ezaugarri. Paisaia aldetik balio handikoa; hiri eta tokikotasunaren arteko orekak ez du aldaketarik gomendatzen.
- Ormigo inprimatuz amaitutako zoladura eta argiteria publiko homogeneoa ditu, aurreko atalean adierazitakoaren osagarri.

Lerrokadura zuzentzeko espazio libre (ES-LI) kalifikazio xehatua duen 357,86 metro koadroko lur azalerari eragiten dio. Horietatik 145,13 metro koadro ekipamendu erabilera izatera pasako dira (EQ) eta 212,73 metro koadro, jardun zuzeneko egoitzetakora izatera (RE-OR10-1). Aldaketak Gasteizko 11. poligonoko 279, 280, 1153 eta 1155 katastro lursailari eragiten die.

Gasteizko HAPOaren xedapen-aldaketa horri dagokion proiektuaren oroitidazkian honako hauek aipatzen dira: haren xedea, ekimena, haren egokiera eta beharrendaren justifikazioa eta indarrean dagoen plangintza eta aldatua, baita planoak eta dagokion dokumentazio grafikoa ere.

Plan Orokorrean aldakuntza hau egitearen aldeko txostena egin du Gasteizko Udaleko Nekazaritza Eremuaren Zerbitzuak, eta bertan Ostatu emaileen kalea handitzeko aurreikusitako emakidak desagertzearen egokitasuna jasotzen du.

2017ko uztailaren 14an Gasteizko udaleko Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak plan orokorraren aldakuntza honen aldeko txostena egin zuen, eta egokitzeak jo zuen behin betiko onespena ematea.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko uztailaren 28an egindako bilkuran hasierako onespena eman zion Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrearen xedapen aldaketa horri, zein Gasteizko Armentia menpeko toki erakundeko Ostatu Emaileen kaleko lerrokadura zuzentzeko baita; Guztia Armentia administrazio batzarrak eskatuta eta dosierrean jaso den proiektuarekin bat.

Udalbatzaren erabaki hori 2017ko abuztuaren 21eko ALHAOn (95. zk) eta 2017ko abuztuaren 25eko El Correo egunkarian argitaratu zen, eta aldaketari buruzko dokumentazioa hilabete batez jendaurrean jarri. Ez da inolako alegaziorik aurkeztu denbora horretan.

Armentia Administrazio Batzarrari 2017ko abuztuaren 4an eman zitzaion erabakiaren berri, hogei eguneko epean txostena eman zezan; Epe hori igaro delarik ez da ebazpen edo erantzunik jaso eta, horrenbestez, izapidearekin aurrera jarrai daiteke.

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak 2.01.06 artikuluan xedatzen duenez, eremuen mugei dagozkien garapen tresnetan egokitzapenak egin ahalko dira, honako alderdiei dagozkienetan: lerrokadurak edo indarrean dauden eraikuntzetarako lerroak, edo hiri edo landa jabetzen mugak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 61. eta 62. artikuluek plan orokorraren eduki substantiboa eta hori gauzatzeko beharrezko den gutxieneko dokumentazioa zehazten dituzte, eta plan orokorraren aldakuntzak antzeko dokumentuetan formalizatuko dira, edukia aldakuntzaren xedera egokituta.

2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 20ko 105/2008 Dekretuaren 30. artikuluan ezartzen denaren arabera, plangintza orokorrean integraturiko antolakuntza xehatua aldatu egin ahalko da plangintza orokorraren aldakuntzaren figura baliatuz, besteak beste, eta horretarako 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. artikuluetan araututako prozedura ezartzen du.

Udalbatzari dagokio hirigintzako legediak aurreikusitako planen nahiz bestelako tresnen udal tramitazioari amaiera ematen dion onespena ematea, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak—Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua— 123.1.i artikuluan ezarritakoaren ildotik.

Proposatzen den antolamendu aldaketaren ildotik —dosierrearen parte diren hirigintza-agi-rietan justifikatzen da horren beharra eta egokiera—, aipatutako arauak aintzat harturik eta Toki Jaurbidearen Oinarriei buruzko 7/1985 Legeak —abenduaren 16ko Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua— 122.4 a) artikuluan aitortzen dion aginpidea baliaturik, hauxe proposatzen dio Hirigintzako Batzordeak Udalbatzari,

Erabakia

1. Behin betiko onespena ematea Gasteizko udalerriko HAPOaren xedapen aldaketari, Gasteizko Armentia menpeko toki erakundeko Ostatu Emaileen kalearen lerrokadura zuzentzeari dagokionez, dosierrean jasota dagoen proiektuaren arabera, eta Armentia Administrazio Batzarrak hala eskatuta.

2. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

3. Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikuluekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko urriaren 30ean

Alkate lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE

